



Aldatze Ikastetxean 100 urte baino gehiago daramatzagu gure ikasleei kalitatezkoa eta integrala den heziketa ematen, bere gaitasun eta jarrerak era egokienean garatzen lagundu diezaien. Izan ere, gure interesik nagusiena pertsonak heztea da. Trebatuak eta inguruarekin sentsibilizatuak diren pertsonak, aniztasun kulturala nagusi den gizarte batean bizitzeko prestatuak eta bere eraldaketan arduratuak, kristau humanismoaren ikuspegitik.



Haur Eskola, Haur Hezkuntzako lehen etapari dagokion heziketa unea da, eta bertan 4 hilabeteetatik 3 urte bitarteko haurrak daude. Une honetan, haurren heziketa osasuntsu baterako zein norbere ikaskuntzarako beharrezkoak diren neurri egokiak hartzen dira. Gainera, haurren lehen gizarteratze une garrantzitsua izango da.

Jolasa dela medio, hezitzaileek haurren garapena aberasten duten ekintza ezberdinak burutzen dituzte. Hauekin, honako balore hauek landu nahian: adiskidetasuna, laguntasuna, samurtasuna... Bestalde, hainbat ekintza burutzerakoan aberasgarria da beste haur batzuen jokoerak ikusi eta behatzea.

Haur Eskolak, haurren garapen egokian lagundu nahi dio familiari.



GURE ORDUTEGIAK:

SARRERAK	IRTEERAK
7'30 – 10'00	12'30 – 13'15
12'00 – 13'00	16'00 – 17'30 *
15'00 – 15'30	

* Irteera ordu hau gutxieneko talde bat osatzen bada bakarrik mantenduko da.

GURE KUOTAK:

- 5 ordutik behera: 202 €
- 5 ordutik gora: 252 €
- Mixta: 230 € (3 egun 5 ordutik behera / 2 egun 5 ordutik gora)

Gurasoen Elkarteko kuota: 5'50 €/hilean (familia bakoitzak)

Familiak matrikula gauzatzean urteko 11 kuotak ordaintzeko konpromezua hartuko dute, irailtik uztaiera.



JAN ORDUAK:

BAZKARIA	ASKARIA
11.30-12.30	15.30-16.30